

**EUSKAL UNIBERTSITATERANZKO BIDEAN,
ZENBAIT GOGOETA**

Hiru urte pasatu dira Udako Euskal Unibertsitateak bere lehenengo kongresua egin zuenetik, eta bertan jaiotzako hasierako unean jarritako helburu nagusia berretsi zuenetik: *“Euskal Unibertsitatea sortzen laguntzea. Euskal Herri osoa hartuko duen eta euskara lan- eta komunikazio-tresna nagusitzat edukiko duen unibertsitatea”*. Sortu zen une beretik, UEU helburu horretarantz abiatu dago, eta horregatik egoki iritzi izan diot, bide honetan goazela —eta bide horretan aurrera egin nahi dugulako— sarrera-hitzaldi honetan gai horri buruzko gogoeta egitea.

Gogoeta bat da —erabat irekia—, galdera modura planteatzen dudana, eta ez erantzun edo soluzio modura. Existitzen ez den utopia baten desideratatzat har dezakezue, entzuleengan kezka sortarazteko agertua, jende askoren arteko proiektu kolektibo batez ari baikara. Izan ere, inork hemendik soluziorik eskainiko dudala uste badu, aldeztatik adierazi nahi diot, oker dabilela, eta horri begira badago, denbora galdu besterik ez duela egingo.

Badira zenbait jakintsu eta zientzialari ospetsu —oso-oso gutxi, benetan—, besteok baino erantzun hobekak aurkitu izan dituztenak eta teoria berriak plazaratu edo fenomeno berriak

aurkitu dituztenak; baina oso bakanak dira horretara iristeko zoria dutenak, gero historian salbuespen moduko pertsona handitzat dauzkagunak. Jakintsu eta zientzialari gehienak, gutxi horiek plazaraturiko teoria berrien testak egiten saiatzen gara, eta gutxi horiek aurkitu eta azaldukoak ulertzen eta —zenbaitetan— ulertarazten. Baina jakintsu handi horien mailara iristeko gaitasunik izan ez arren, guztiok dugu galderak planteatzeko eta kezka berriak plazaratzeko aukera, eta, ene ustez, horixe da garrantzitsuena, horrek definitzen baitu gehienbat zientzialarien jarrera, hots, galderak egiteko ausardia, galderaren inguruko pentsaketa egiteko gogoia eta erantzunak bilatzen aritzeko kemena, alegia. Horrelako zerbait da Euskal Unibertsitatearen inguruko galdera hau ere, pentsarazteko plazaratzen dudana, erantzun egokia bilatzeko kemena —eta zoria— izango dugulakoan.

Sarrera-hitzaldiak norantza bakarrekoak izan ohi dira; esan nahi baita, hizlariak berea esan eta entzuleek ez ohi dute erantzuteko aukerarik. Nik ez dakit honek ere berdina izan behar lukeen, kontzientea bainaiz, aurkeztuko ditudan iritzi eta gai batzuk guztiz eztabaidagarriak izan daitezkeela, eta horretan abantaila pixka batez jokutzen dudala. Bego! Baina argi gera bedi, eztabaida horretan interesaturik nagoela, eta hitzaldi honek segidarik balu, horixe litzatekeela niretzat poztasun-iturri.

Beraz, atariko kontsiderazio horiek egin ondoren, abia nadin neure azalpenen bidetik. Nolanahi dela, diodan ezen, kasu honetan, gogoeten ordenak ez duela aparteko garrantzirik, eta ordena hori gorabehera, bere osotasunean hartu behar direla. Eta kontuan hartu behar da, gogoeta horiek Euskal Unibertsitatea premiazko eta urgentziazko arazotzat daukan batengandik eginak direla.

Kategoria ala unibertsoa?

Azken urteotan *Euskararen Unibertsoa* izenarekin bideratu den ekimenak, bi kontzeptu funtsezko landu ditu, euskaldu-

nok bizi garen egoera eta bizi nahi dugun egoera zehazteko eta bereizteko. Euskararen Unibertsoaren jardunaldietako gogoeta nagusia ekarriko dugu gogora (1997-III-7/8). Honelaxe dio: "Edozein gizarte-zereginetan lehenbiziko fasea, eta garrantzitsuenetakoa, unibertsoa definitzea da, hau da, mugarrak ezartzea. Eraikuntza bonek gobernatzen ditu buruen urrats guztiak, emaitza eta ondorioak baldintzatu, eta eragin anitz eta ezberdinak ditu kulturaren baitan. Hain zuzen ere, jende guztiak, guk guztiok, egunero eta eguneroko bizitzan, giza jardunei esanahia sortu eta emateko interpretazio-tresna modura erabiltzen ditugu arau eta balioak, unibertso eta kategoriak. Horregatik zaigu hain garrantzitsua unibertsoak eta kategoriak nola eraikitzen diren eta zer ezaugarri dituzten aztertu eta jakitea. **Unibertso** diogunean, bere bizitza, nortasuna eta arauak sortu eta garatzeko gaitasun propioa duen edozein munduri deitzen diogu. Beraz, «esparru», «sistema», «komunitate» eta honelakoak. Gertatu ere gertatzen da azken bitz-sorta honetako batzuek zenbait konnotazio eta esanahi kokatu edo sektorial hartu dituztela-eta, «unibertso» hitza hobesten dugu, garai zail hauen aurrean, energia berriz euskararen mundua, unibertsoa, egoki dezagun. **Kategoria** diogunean, berriz, unibertso horretako zati, izaki, klase edo osagaien mintzatzen gara". Ene ustez, kontzeptuen bereizketa hori funtsezkoa da unibertsitateari dagokionez. Izan ere, argi utzi behar dugu lehen unetik, zer garen eta zer izan nahi dugun —kategoria ala unibertso—, horrek geroari begirako plan-gintza eta estrategiarako bidea markatuko baitu.

Euskararen aldeko edozein ekimenek bi posizio horiek har ditzake —hots *kategoria* ala *unibertso* bihurtu nahi izatearenak—, eta hori funtsezkoa da etorkizunari begira. Zer esanik ez, unibertsitatean ere kategoria edo unibertso izatearen arteko aukera estrategikoa egin dezakegu. Kategoria izatea aukeratuko bagenu, berez erdalduna den mundu batean *euskaraz ere* aritu ahal izatea erreibindikatu eta egoera marginal horretan irautea aukeratuko genuke. Hori litzateke dena. Kasurik

onenean, euskal adarrak erabat gara genitzake, baina beti ere enbor nagusiago baten adar modura, beste hainbat adar —erdaldun, noski— dituen zuhaitz baten parte modura, zuhaitzaren izerdia enbor horretatik letorkigukeelarik, eta bertan gure diferentzia "toleratu" egingo litzatekeelarik. Ordea, guk ez dugu toleratuak izan nahi, euskaldun modura errespetatuak izan baizik. Labur esanda, gure *unibertso* unibertsitarioa eraiki nahi dugu eta ez beste unibertso baten atal berezi edo *kategoria* izan; horregatik, arazo honen benetako konponbide bakarra *euskarazko unibertso izatean* dagoela uste dugu.

Kategoriarena pasoko egoera modura hartu behar delakoan nago, unibertso izatera iritsi aurreko egoera horretatik abiatu baikara; hain zuzen, orain kategoria modura hartzen baikaituzte, "babestuak izateko eskubidea" dugun kategoria modura. Horixe litzateke, adibidez, UPV-EHUko egoera —Euskal Herrian kokaturik dauden beste unibertsitate batzuen kasuan kategoria modura onar gaitzaten borondate-izpirik ere ez dago, hala nola Opus Deirenean—, bertako estatutuetan definitzen dena, eta kasurik onenean ere unibertsitateko ikasketak euskaraz egiteko aukera eskaintzera bideratuko litzatekeena. Zer esanik ez, euskal adarrak erabat garatzearen aldeko ekimena bultzatu behar dugulakoan nago. Baina argi edukiz, hori ez dela helburua, noizbait helburura iristeko eman beharreko pausoa baizik; eta ez, are txarragoa dena eta UPV/EHUen batzuk planteatzen ari diren bezala, euskal adarren guztizko garapena helburu desegokia delakoan, erabat gauzatu aurretik oztopatu nahi den pausoa.

Ene ikuspuntutik, bi kontzeptu horiek argiro definitzean eta bereiztean dago arazo honen konponketarako gakoetako bat, agian garrantzitsuena dena. Euskarazko unibertsoa izango den unibertsitatea eraiki behar dugu —Euskal Unibertsitatea—, egituran, zerbitzuetan, irakaskuntzako eskaintzetan, plangintzetan... nagusiki euskaraz biziko dena. Eta behingoz argi eduki behar dugu, erdal unibertsitate baten atal moduko kategoria izatea azken helburutzat jartzeak, betiko bazterturik eta biga-

rren mailan egotera behartzen gaituela. Labur esanda, etorki-zunerako estrategia desegokia dela.

Bidenabar, hirugarren bide bat ere aipatu nahi dut, ez unibertso eta ez kategoría izatera kondenatu nahi gaituztenena, sarri zientzia arlokoen artean planteatzen dena, eta ez hainbeste gizarte-zientzien arlokoen artean, azken hauek gizatiarragoak edo izanik zuzenagoa baitute hizkuntzarekiko lotura. Zenbait zientzian erabiltzen diren "hizkuntza unibertsalen" —Kimikako formulazioa edo Matematikaren idazkera— bidetik edo, eta argitarapen zientifiko gehienetan erabili ohi den ingelesaren eraginez, beti ere zientziaren unibertsaltasunaren ize-nean, inportanteena ikerkuntzaren emaitzak zabaltzea dela esanez, unibertsitatean erabili beharreko hizkuntzek hainbesteko garrantzia ez dutela, garrantzitsuena "komunikazioa" dela... eta horretarako onena ingelesa dela esango dizute.

Planteamendu horrekin, arazoaren muina desbideratuz, "gehiagizko igoeraz" edo "elebazioz" argudiatzen dute sarri, gaur egun benetako unibertsitatioak izateko euskararen mundua gaingitu eta ingelesa bereganatu behar dugula, eta erdara/euskara erabili behar ote den eztabaidatzea denbora galtzea dela.

Batetik, faltsukeriatan ari dira, aldi berean erdaraz bizi den unibertsitatea aldatzeko inolako eskaririk egiten ez dutelako, eta horrela dagoen egoera iraunarazten dutelako. Bestetik, planteamendua okertzen ari dira, zeren hemengo arazoa ez baita kanpo-harremanetarako erabili behar den hizkuntza —kanpoko zientzialariekiko harremanak bideratzeko, kanporako lanak argitaratzeko...— eguneroko ekimenean erabili beharrekoa baizik. Eta plangintzatarako eta erabakietarako hartu beharreko oinarriak.

Euskal Herriko Unibertsitatea(k) versus Euskal Unibertsitatea

Ene ustez, benetako arazoa, itxuraz elkarren antzekoak baina izatez elkarren aurkakoak diren bi kontzeptu hauen zehaz-

tapenean dago, prezeski, horien arteko aukeraketa egitean. Izan ere, gaur egun Euskal Herrian ditugun unibertsitateen — horietariko batek Euskal Herriko Unibertsitatea izena bereganatu zuen— eta euskaldunok euskaldun modura euskal unibertsioan bizi ahal izateko behar dugun Euskal Unibertsitatearen artean dagoen desberdintasuna argitzea funtsezkoa delakoan nago.

Gai honek berebiziko garrantzia izan zuen duela hogeita bost urte izandako eztabaidetan, eta garai hartan egin zèn bi kontzeptu horien bereizketa sarri jakintzat ematen den arren, uste dut behin eta berriro azpimarratu beharrekoa dela, gutxiarik eztabaida haietan zuzenean parte hartu ez zuten belaunaldi berrikoentzat bada ere.

Euskal irakaskuntza-sistema propioa —Euskal Herrikoa, Euskal Herrian diseinatu eta kudeatua, Espainiako eta Frantziako sistema unibertsitarioen menpekora izango ez dena...— lortzeko eskari eta exigentzia, aspalditik —mende honetako lehenengo hamarkadatik bederen— datorren kontua da.

Historikoki forma desberdinak izan ditu, dela Hego Euskal Herriako barruti unibertsitarioarena, dela hemen kokaturiko unibertsitatearena... hasiera batean hizkuntzari dagokionez definizio zehatzik egin ez bazen ere. Seguruarik, euskararen erabilera unibertsitarioarena zehaztasun eta tinkotasunez planteatu zeneko lehen unea, Udako Euskal Unibertsitatearen sorreraren inguruan etorri zen.

Garai hartako eztabaidaren erdian, K. Santamaria izan zen, oker ez bagaude, bi funtsezko kontzeptu argitzen saiatu zen lehena, ordutik aurrera bi bide argi adierazita geratu zirelarik. Santamariak "Euskal Herriko Unibertsitatea(k)" eta "Euskal Unibertsitatea" bi kontzeptu desberdin direla azaldu zizun. Berre hitzen bidez gogoratuz: *«Bi eginkizun diferente dago uste dudanez, gure Unibertsitatearen alorrean. Batari Euskal Unibertsitatea dei lekiok; besteari, berriz, Euskal Herriko Unibertsitatea izena emango nioke nik, bion arteko desberdintasuna*

ongi azaltzeko /.../ Euskal Herrian dauden eta egongo diren unibertsitate eta sasi-unibertsitateen multzoari Euskal Herriko Unibertsitatea izena emango diogu. Aldiz, uste honek utopia itxura badu ere, nere terminologiaz Euskal Unibertsitatea, euskal kultura eta hizkuntzaren "alma mater" izan beharko litzatekeen euskarazko unibertsitatea da.

Guk oso egokitzat dugu Santamariaren zehaztasun hura, gero-ago etorriko ziren gatazken argigarri, izan ere, orduetik hona, unibertsitateko barne-gatazkaren une desberdinetan bi kontzeptu horiek kontrajarrita agertu baitira, etengabeko kontraesanean.

Nolanahi dela, Euskal Herriko Unibertsitatea(k) eta Euskal Unibertsitatea bi kontzeptu horiek desberdinak izan arren, berez, ez lukete zertan aurkakoak izan. Baina azken hogeitabost urteotako eskarmentuak erakusten digunez, behin baino gehiagotan EUREn aldeko ekimena integratu eta irentsi nahiz aritu izan dira —UEUREn integratiorako UPV/EHUK egindako ahaleginak, hesteak beste— eta Euskal Herriko Unibertsitateek Euskal Unibertsitatearen ukapena ere egin izan dute praktikan, honen premia dagoenik ere ukatuz eta Euskal Unibertsitateak berak direla aldarrikatuz. Ordea, gaur eta hemen EURI buruzko gogoeta egiten ari gara, sortu barik dagoela eta sortu beharra dagoela seinale.

Izan ere, gaur egun askotxo dira Euskal Herrian kokaturiko unibertsitateak, baina horietariko batek ere ez dio erantzuten Euskal Unibertsitatearen aldeko eskariari, hots, ezin esan deza-kegu horietako bat bera ere Euskal Unibertsitatea denik; ez hizkuntzari dagokionez, ez lurraldetasunari dagokionez, ez antolakuntzari dagokionez, ez ikasketa-plangintzei dagokionez, ez ikerkuntzaren antolamenduari dagokionez, ez irakasleriaren eraketari dagokionez... Eta asko gara horren premia ikusten dugunak, eta hori lortzeko pausoak eskatzen ditugunak eta pausoak emateko prest gaudenak. Bitartean, badirudi Euskal Herriko Unibertsitatea(k) eraikitzean hesiak jarri nahi direla prozesu hori abia ez dadin.

Garbiro hitz egin dezagun: orain doan bidetik segituta, Euskal Herriko Unibertsitateetan, kasurik onenean ere kategoria izatera kondenatu nahi gaituzte betiko. Ostera, EU unibertsitatearen aukeraren gauzapena da. Kasurik onenean, gaur eguneko unibertsitatearen batean —UPV/EHU adibidez, hortik hurbilen dagoena aipatzearren— euskal adarrak erabat garatuta ere —gaur eguneko plangintzen arabera, jadanik helburu modura planteatzen ez dena, eta beraz, lortzeko asmoa ez dagoena—, hori ez litzateke Euskal Unibertsitatea izango, bai egituraz, bai legez, eta bai funtzionamendu orokorrez unibertsitate espainiarra litzatekeelako. Gehienera jota, erdal unibertsitatearen barneko euskal kategoria —beheragoko mailakoa, beraz— izatera iritsiko litzateke.

Argi esan dezagun behingoz: oraingo sistemako Euskal Herriko Unibertsitateak ezin bihur daitezke EU, horretarako jauzi koalitatibo funtsezkoa beharrezkoa delako; erdal munduko kategoria izatetik euskal unibertsitatearen barneko sistema unibertsitarioa izatera pasatu behar dutelako.

Balitzko Euskal Unibertsitatearen zenbait ezaugarri

Sarri gai hauek planteatzen ditudanean, zer nolako unibertsitatea eraikiko nukeen zehaztasunez esateko galdetzen edo eskatzen didate. Egia esan, zer erantzun jakin gabe geratzen naiz, eskaria eta galdera planteatzen dakidan arren, erantzun zehatzik ez baitut. Hala ere, horrek ez nau gehiegi kezkatzen, balitzko Euskal Unibertsitate horren eraikuntza prozesu kolektibotzat baitaukat, eta txarto bailegoko pertsona edo talde bakarraren eskuetan zehaztasunen finkapena uztea. Gainera, hasieran esan dudana bezala, galdetzen badakit, baina erantzun gutxi dauzkat. Edozein kasutan, azken urteotako gorabeherak buruan ditudala, balitzko unibertsitate horrek eduki behar litzatekeen zenbait ezaugarri aipatzeko bezainbesteko segurtasuna badudala esan dezaket, eta izan behar ez litzatekeen zenbait ezaugarriena ere. Noan, bada, horrelakoan aipamen eskemati-ko egitera, prozesua benetan abiatzen den unean talde-lane-

an eztabaidatu eta erabaki beharrekoak direla jakinda, eta horretarako gai izango garelako konfiantza osoz.

- * Esan gabe doa, baina badaezpada berriz esango dut, lehenengo ezaugarri modura —garrantzitsuena eta berezi-ena—, barne-harreman guztietan —ikasleekiko harremanetan, irakaskuntzan, ikerkuntzaren prestakuntzan, administrazioan, dokumentuetan,...— euskara izan beharko dela hizkuntza. Izan ere, Euskal Unibertsitatea euskararen unibertso gauzatu gabearen atala izango baita, ezer izatekotan. Edo ez da izango.

Hizkuntzarena funtsezkoa izanda ere, ez da Euskal Unibertsitateak izan beharko lukeen ezaugarri bakarra. Izan ere, benetan kategoria izatetik unibertso izatera pasatzeko, eta bertan euskaraz bizi ahal izateko, hizkuntzaren ezaugarri hori beste zenbait ezaugarri hornitu eta bermatu beharko da. Beste gauza bat da, beste unibertsitateetako zientzialariek, eta kanpo-harremanetarako bestelako hizkuntzak ere erabiltzea, toki guztietan egiten den modura; eta bestelako hizkuntzak ezagutzearen garrantzia azpimarratzea.

- * Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateetan dugun eredu unibertsitario espainola —edota frantsesa— gainditu beharko da, edo gure arteko hitzak erabiltzeko, "marko" berrian sortu beharko da Euskal Unibertsitatea, hots, marko legal eta kontzeptual berrian.

Hala ere, honetaz bi ohar egin nahi nituzke, oraingo politikari batzuen auto-ukazioa salatzen. Berez, Euskal Autonomi Erkidegoari dagokion Autonomi Estatutuak eskuduntza guztiak onartzen ditu irakaskuntzaren eraketari dagokionez. Azken urteetan hainbat juristak behin eta berriro aitortu izan dutenez, bide hori hartzea guztiz posiblea zen —eta da—. Ordea, arestian Eusko Legebiltzarrean onartu duten Unibertsitate-Antolakuntzarako Legea prestatzean Oliveri jaunak berak espreski aitortu duenez,

euskal erkidegoetan ez omen dugu irakasleria eratzeko inolako eskuduntzarik.

Gauza bera gertatu da praktikan, ikerkuntzari dagokionez, egunotan Etxenikek berak salatu duenez (ikus Argia, 98-VII-12) —harrigarria, bera ere EAkoa eta lehenago sailburu izanik—. Etxenikek aitortu digunez, "*Estatutuak euskal erakundeek ematen dituzten ikerketa zientifiko eta teknikoaren eskumen osoa, Estatuarekin koordinazio baten barruan. Koordinazio hau modu okerrean hartu izan da. Ezer eta guztiaren artean eztabaidarako tarte handia dago. Eusko Jaurlaritzak ez lioke inoiz uko egin behar hiritarren agindu horri, eta beraz, eskumen hau gauzatu egin behar luke*". Hitz horiek onartuta, nola onar daiteke eskubideen oraingo sailburuaren auto-ukazio hori, benetan Euskal Herrirako eredu propiorik sortu nahi bada?

Ene ustez, Euskal Unibertsitatea eskubide baten *auto-baieztapena* egitetik etorriko da, orain arteko *auto-ukazioak* gaituz. Auto-baieztatu egin behar dugu praktikan geure herriko unibertsitatea eratzeko eskubidea dugula, Euskal Herriak bere irakaskuntza-sistema propioa eratzeko eskubidea duela.

Auto-baieztapen horretan nola edo hala gaituz egin behar da, Espainiako unibertsitate guztiak uniformizatzeko 1983an ezarri eta inposatu zen LORU legearen marko estua, unibertsitate propioen sorrera itozteko asmatu zena, Autonomi Estatuetan aipatutako eskuduntzak itozteko asmoz. Zer esanik ez, arazo politiko sakon batez ari gara, gatazka zabalago baten parte dena. Nolanahi dela, marko zaharraren gaituzpenetik eta auto-baieztapen horren abiapuntuarekin hasi behar dugu gauzatzen Euskal Unibertsitatearen eredu berria.

* Unibertsitate horrek erakunde autonomoa izan behar du. Nolabait esateko, unibertsitate autonomoa sortu behar dugu, *administrazioarena izango ez dena eta bere estatutu*

propioa izango duena. Herritarren zerbitzurakoa, baina ez unean uneko administrazioaren gidatzaile edo agintariena, Unibertsitatea zerbitzu garrantzitsuegia baita txandaka dabilzan politikarien interesen menpeko erakundea izateko.

Oso oker handia burutzen ari da oraingo sistema unibertsitario espainiarrean administrazioaren unibertsitatea eraiki nahi izanik. Ene ustez, izpiritu unibertsitarioa garatu ahal izateko behar den askatasun ideologikoa bermatzeko, katedra-askatasuna benetan posible izan dadin, funtsezkoa da gobernuak gidatzen duen administrazioetik aparte antolatzeko eskubide hori, alegia, unibertsitateak autonomia izan behar du.

- * Horregatik Euskal Unibertsitatea ezin daiteke eredu funtzionarialean oinarrituz eraiki, eredu hori administrazioarekiko sumisioan oinarrituta baitago. Eredu funtzionariala funtsezkoa da "administrazioaren unibertsitatea" eraikitzeko, irakasleak eta bestelako langileak administrazioaren "funtzionario" bihurtuz, hots, administrazioetik bideratzen den politika unibertsitarioaren "funtzioa" betetzera behar-tuz. Irakasleak karrera unibertsitario funtzionarialera bultzatuz, hauen irudimena, ahalegina eta indarra "oposizioen teknologia" garatzera eraman dute, benetako bizitza unibertsitarioa murriztuz, eta ideien eztabaidarako bideak itxiz.

Arrazoi beragatik, Euskal Unibertsitate berti horretan funtsezkoa da irakasleriaren antolakuntza funtzionariala izango ez den eredu batean oinarritzea. Irakasle libreak, zientziaren garapenak eskatzen duen askatasunez jokatu-tuko duten irakasleak ezin egon daitezke, orain dauden bezala, Espainiako Konstituzioaren onespenezinaren menpean egon. Irakasle izateko ezin ipin daiteke mota horretako baldintza ideologikorik, beti ere diskriminazio ideologikoa gauzatzeko direnak. Irakasleak ez daude administrazioaren funtzioa betetzeko, gizarteari —euskal gizarteari—

zerbitzu bat eskaintzeko baizik, jakintza eta zientziaren arloan zerbitzua bat eskaintzeko.

- * Ez gaitezen itsutu orain ditugun unibertsitate publikoen eruedetan, horiek eredu oso mugatuak baitira eta munduan zehar bestelako hainbat eredu ari baitira funtzionatzen, arrakasta handiz zenbait kasutan.

Ikastolen sorrerak pistaren bat eskain dezake Euren sorrera horretan, nahitaez hortik etorri behar duenik esan nahi ez dudan arren. Irakaskuntza-sistema hankamotz geratuko da, unibertsitatearen arlora iristean jarraipenik ez badu. Jarraipena moztean, euskararen unibertsoari ateak ixten zaizkio irakaskuntzan, eta horrekin beste arlo guztietan ere. Baina ikastolaren adibidea beste arrazoi batengatik ere bada interesgarria, bereziki *titulartasun ez-administratiboa duen zerbait* sortzea posiblea dela erakusten duelako eta eredu horrek funtzionatu ere ondo funtzionatzen duelako. Alegia ez estatuena, ez administrazio autonomikoena den zerbait, parte hartzen duten herritarrek jartzen diotelako ekimenari herritartasuna, benetako publikotasuna.

Irakaskuntzaren munduan Euskal Herrian oso eredu bitxi eta propioa sortu genuen, halaberharrez inposatu nahi ziguten eredu bikoitzetik aparte —eskola publikoa/eskola pribatua—. Hori nolabait abortarazi nahi izan zuten eredu propioa. Uste dut badagoela zerikasirik orduko esperientzia traumatikotik.

Horretaz, atzerago joanda, on litzateke, behinola eredu horren aurka aritutako Adolfo Suarezren partiduak (UCDk) bere ezintasunean ongi asko adierazitakoa gogoratzea. Ikastolak zer ziren argi definitu zuen: *centros públicos de titularidad no estatal*. Ba, horixe. Dena den, ez da zertan horretara mugatu, munduan zehar hainbat eredu desberdin baitago (interesgarria da, adibidez, Belgikan izandako prozesua); aipatutako hori, ordea, gure-gurea da.

* Esandako guztiengatik, argi geratu da ene ustez, oraingo unibertsitate-sistemak ez digula irtenbide egokirik eskaintzen bere horretan. Horregatik uste dut, Euskal Unibertsitatea egitura hori gaudituko duen marko edo eredu berri batean sortu beharko dela, gaur egunko sisteman dagoen hutsunetik, eta ez gaur egun dauden unibertsitateen transformazio edo erreformatik. Hots, EU gauza berria izan beharko da.

Baldintza objektiboak eta baldintza subjektiboak

Euskal Unibertsitatearen sorrera posibletzeko baldintza objektiboak egon badaudela uste dut. Batzuen gustuko hitzak erabiliz, "kapital humano egokia" eskura dago. Euskaraz ikasteko prest dauden ikasleak badaude (hamar-hamabost milatik gora unibertsitate desberdinetan), munduko unibertsitate askotan baino kopuru handiagoan. Milaka lizentziatu badira jadanik, unibertsitateetan beren ikasketa batzuk euskaraz burutu dituztenak eta prozesuan parte har dezaketenak. Euskaraz irakasteko eta ikerkuntza-taldetan euskaraz aritzeko gai diren irakasleen kopurua ere unibertsitate askotan dagoena baino handiagoa da (lanean euskara erabiltzeko gai diren zazpiehun irakasle baino gehiago oraingo unibertsitateetan) —honetaz, Bat aldizkariaren 25. zenbakian X. Isasik idatzirik artikuluak kontsulta daiteke, ondorioak oso kontuan hartekoak direlarik—. Euskal Unibertsitatea abiarazteko oinarri funtsezkoenak prest daude, posibilitate modura bederen (zenbait ikasketa osorik burutu daitezke euskaraz, eta beste zenbaitetako euskal adarrak osotuz doaz).

Bestalde, etorkizunari begirako ikuspegiak, Oinarrizko Hezkuntza eta irakaskuntza ertainetan euskal ereduetan ibilitako ikasleak gero eta gehiago dira, erdiak baino gehiagok aukera hori egin dutelarik; hauei jarraipena ematea bidezkoa dirudi. Eskaria bera ere plazaraturik dago duela zenbait urte, eta orain dela hiru urte UEUK buruturiko kongresuan berriro planteatu zen arazoa konpondu beharraren deia...

Baldintza objektiborik ez dagoela? Tira! Serioak izan gaitzen. Beste kontu bat da pauso/apostu hori emateko eta erronka horri aurre egiteko prest gauden, horretarako baldintza subjektiboak baitira beharrezkoak. Ene ustez, inoizko baldintza objektibo onenak daude, Euskal Unibertsitatearen sorrera erabat posible —beharrezko eta desiragarri— egiten dutenak. Zer da falta dena? Horixe da kontua. Nik zenbait faktore azpimarratuko nituzke:

- * Lehenik eta behin faktore subjektiboa. Euskaldunok bizirik mantentzen gaituen faktorea hauxe baita. Historian zehar izan ditugun baldintza objektiboak ia beti txarrak izan dira, azken hirurehun urteotan bereziki (ikus bestela, Jimeno Jurio eta Torrealdairen azken liburuak). Miraritzat har daitekeen eran bizirik mantendu gaituen elementua, gizabanakoek eta euskaldunen talde batzuek izan duten subjektibotasuna izan da, alegia, kolektiboki euskaldun iraun nahia. Hori da orain ere euskararen unibertsoaren inguruko gogoetaren mamia, eta horixe da Euskal Unibertsitatea erakitzeko behar dugun lehenengo eta azken faktorea.
- * Bigarrenik, aurrekoarekin erabat lotuta dagoena, "borondate politikoa"; ez politikariena soilik, euskaldunena ere bai baizik. Borondate politikoa eta unibertsitate hori erakitzeko erabakia. Ez da esan nahi, borondate politikoa hori politikariei soilik dagokienik, gizartea aurrera daramaten bestelako talde asko baitaude, eragin handikoak izan daitezkeenak. Noizpait abiatu beharko baita prozesua.
- * Hirugarrenik, borondate eta erabaki politikora iristeko bultzada. Noizbait "behartu" egin beharko dira herritarron izenean erabaki politikoak hartzen dituzten politikariak eta alderdi politikoak edota bestelako erabakiak hartzen dituzten gizarte-taldeak —ekonomikoak ere bai, noski—, Euren sorkuntzarako bidean. Arlo honetan ere akordio sozial batera iritsi beharko da, eta horretarako behar-beharrekoa

zaigu mugimenduan abiatzea, gizarte-ekimen batez gauzatu beharko dena.

Laburbilduz, Euskal Unibertsitatea sortzeko, gogotik egin beharko dugu lan, horren aldeko herri-mugimendu sendoa sortuz. Besterik ezean, *herri-ekimenetik* sortua izan beharko da. Eta eskari hori indartzeko herri-mugimenduren bat sortu beharko dela uste dut. Hau ez da nire asmakizuna, UEUren lehenengo kongresuan eztabaidatu eta proposatutako gaia baizik. Bidenabar diodan, "Kongresuan onartutako txostenen bilduma" izenburuarekin UEUk argitaraturiko liburuxoa irakurtzea gomendatzen dizuedala, bere laburrean ondo kondentsaturiko ideiak dituena. Esate baterako, Euskal Unibertsitatearen aldeko Patronatuaren sorrera aldarrikatzen da *"eragile izan daitezkeen estamentu sozial, politiko, sindikal, kultural zein herritarrak abalik eta gebien biltzen saiatzeko"*. Milaka ideia eta gogoeta interesgarri daude bertan, nik neureak egiten ditudanak.

Subjektibotasunaren garrantzia eta integrazioaren arriskua

Dena den, gisa honetako prozesu eraldatzaileetan funtsezkoa da elementu subjektiboa, gizabanakoena hasteko, eta kolektiboa amaieran. Horregatik, ardura handiz landu beharreko arloa dugu subjektibotasunarekin loturikoa, prozesuan zeharreko higaduran hortxe agertzen baita elementu iraungikorrik handiena.

Edozein prozesu eraldatzailetan gizabanakoen subjektibotasuna galduz doa denborarekin, galera horretan dagoen sistemen erakarpen-indarra funtsezkoa delarik. Euskal Unibertsitatearen sorrerarako prozesuan ere, ene ustez, arriskurik handiena oraingo sistemaren integrazioetik datorke, integrazio hori nekez kanpoko hibe desberdinetatik gauzatu daitekeelarik. Eta sisteman integratzean, alde batera uzten dira sistema hori aldatzeko eta Euskal Unibertsitatea sortzeko ekinean dihardu-

ten ekimenak Horietako bi azpimarratu nahi nituzke, azken urteotan integrazioarako tresna oso sutil eta baliotsu gertatzen ari direnak: *funtzionaritzza-sistema* eta *goraipamenaren estetika*.

Funtzionaritzza-sistema da lehena. Azken urteotan etengabe-ko funtzionarizazio-prozesu bat gertatzen ari da gizartean, oro har, eta irakaskuntza publikoaren arloan bereziki, eta ez da oraindik inolako eztabaida publiko eta seriorik egin —eta egin nahi ez dela esatera ausartuko nintzateke—, horrek etorkizuneko Euskal Herriari eta euskal irakaskuntza-sistema propioaren ezarpenari ekar liezaiokeen kalteaz. Gaiak hainbesteri eragiten diola jakinik —hemen entzule zaretendon artean hainbat eta hainbat funtzionario zaretela ongi baitakit—, eta batzuk horretara beharturik aurkitu direla jakinda, hobe nuke agian gaia aipatuko ez banu, baina uste dut errespetutik, eta nik planteatzen dudan intsumisiotik, labur bada ere, ni zergatik naizen intsumiso azaltzea on datekeela.

Urteetan lan zientifiko-intelektualean aritu ondoren, une batean zirt ala zart egiteko bidean jarri ninduten —gintuzten—. Unibertsitatean normaltasunez iraun ahal izateko, funtzionaritzza-bidea hartzera behartuz. Batzuek lehen unetik aurkeztu genuen geure kontzientzia-objekzioa —dokumentu batean arazoituz aurkeztu ere—, beste arrazoen artean espainiar legeekiko fidelotasuna onartzeko prest ez geundelako. Sumisioaren onarpenaren sinbolo modura, funtzionario-izendapena onartzean egin beharreko konstituzio espainiarraren aldeko fidelotasun-zina zegoen. Istorioaren bigarren partea guztiok dakizuelakoan nago; intsumiso bihurtu eta hemen nauzue.

Konstituzioari egin beharreko fidelotasun-zinaren arazo hori ez da ez nolana hikoia, hemen gure artean sarri ezikusiarrena egiten bada ere. Ikus besterik ez dago, 1998ko ekainean bertan Gasteizko Eusko Legebiltzarrean izandako eztabaida bortitza, Gasteizko gobernu hirukoitzaren apurketara eraman duena. Dena dela, unibertsitatean gaudela unibertsitateko adibide bat jartzea egokia delakoan, Einsteinen bizitzarekin

eta nortasunarekin lotura zuzena duen anekdota bat kontatuko dizuet.

Hitzez hitz dakart Mussolini-ren Justizia eta Heziketa Ministroa zen Rocco jaunari Italiako zientzialarien defentsan Einstein-ek idatzitako gutuna. Honelaxe zioen: *"Italiako gorenetarikoak eta errespetatuenetarikoak diren bi zientzialari hurbildu zaizkit, beren kontzientzia-problema agertuz eta zuri gutun bat idazteko eskaturik, posible balitz, Italiako intelektualen eta zientzialarien gainean dagoen mehatxu larria ekiditeko asmoz. Sistema faxistari egin behar zaion fidelitasun-zinari buruz ari naiz. Eskari honekin daukadan helburua, ondokoa besterik ez da, Mussolini jaunari kontseilu eman diezaiozun, Italiako intelektuaren lorea umiliazio horretatik ez pasarazteko".* Hori irakurrita, uste al duzue euskaldun batek bere izaera ukatzen duen konstituzio espainiarrari fidelitasun-zina egitera behartzen duen sistemaz eraiki daitekeela Euskal Unibertsitatea. Uste al duzue umiliazio horretatik pasarazi behar direla oraingo Euskal Herriko Unibertsitate publikoetan beren zerbitzu intelektuala eskaini nahi duten irakasleak?

Dena den, ni gehien kezkatzen nauena, funtzionarizazio-prozesu horrek berekin ekarri duen *integrazioa* da. Salbuespenak salbu eta inoren izenik aipatu gabe —ez nator ni inor juzkatzera, kontzienteki edo inkontzienteki gertatzen den prozesu bati buruzko gogoeta egitera baizik—, behin baino gehiagotan prozesu hau ikusi dut irakasle euskaldun eta euskaltzale askorengan, Euskal Unibertsitatea sortzearen alde lan egin dutez nengana prezeski.

Lehenengo pausoa, euskararen garapena aldarrikatuz, euskal adarren garapenaren aldeko apostua egin zuten batzuk. Zer esanik ez, horietako gehienak irakasle berriak izanik, eta asko formazio-bidean egonik, kontratupeko irakasleak ziren, irakasle ez-funtzionarioak beraz, eta mota berriko irakasleria aldarrikatzen zuten, funtzionarizazioaren bide estutik apartekoa. Horren atzeko aldarrikapena irakasleria propioaren alde-

koa zen, hots, unibertsitate honetako irakasleria propioa —ez Espainiako gorputz bakarreko kidea— eta euskalduna —euskal hiztuna alegia— eraikitzearen aldekoa. Baina estatutuak onartzean, Montreal errektorearen gidaritzapean, ate guztiak itxi nahi izan zizkioten irakasleria propio horri. Berritro ere oztopo objektiboa inposatu nahi izan zen indar subjektiboa deusezteko.

Askok lehenengo unetik barneratu zuten inposizioa funtzionaritzarako bidea (on)hartuz, unibertsitatearen egituran integratuz eta mota desberdinetako zuzendaritza-taldeetan sartuz euskararen aldeko aldarrikapena barrutik egingo zutela esanez. Baina ia matematikoki gertatu izan da alderantzizkoa. Behin funtzionario bihurtu eta sailetako zuzendaritzetan edo dekanotza- edo errektore-taldeetan sartuz, aurrez aurre izan dituzte sarritan euskal adarren aldeko aldarrikapenean zebiltzan ikasle-irakasleak.

Txarrago oraindik, argumentazioan erabilitako arrazoi "objektiboak", finantzazio-falta, irakasle-falta, material-falta eta gisa horretakoak izan dira behin eta berriz. Hasieratik bertatik ez bagenek bezala, falta, eskasia edo hutsune horiek izan direla mugimenduaren beraren abiapuntua, eta gure eginbeharra hutsune horiek betetzea dela. Kontua da, praktikan behin eta berritro ikusten ari garenez, funtzionarizazio-prozesu horrekin batera euskalduntze-mugimendu aldarrikatzailean segitzeko desmotibazioa gertatu dela, integrazioaren efektu modura interpretatzen duguna.

Egoera aldatzeko subjektibotasuna izan duen pertsona lehendik dagoen sistema estatalean integratzean, ia konturatu gabe, estatuaren logikan sartzen da, estatuak berak egiten dion marko-eskaintzara tolestu behar baitu bere jokabidea. Gure ustez, horixe da integrazioak herri-mugimenduetatik datozen pertsonen subjektibotasunean duen efektua: gogo askatzaile eta erreibindikatzaileak ia konturatzeke alde batera uztea, in-

posaturik zegoen sistemaren arauen barnean eroso biziz eta herri-mugimenduaren logikatik aldenduz. Hona iritsita, aurrekoarekin lotuta, bestelako galdera bat ere badago. Demagun EUren proiektua abiatzeko zorian dela. Gaur egungo Euskal Herriko Unibertsitateetan dauden irakasle euskaldun funtzionario horietariko zenbat leudeke prest EUren proiektuan sartzeko? Galdera hipotetikoa da, noski.

Bigarren kezka, "goraipamenaren estetika" izenez ezaugarritu dudana, euskaldun izanda zientzialari modura erdal gizartean maila errekonozitua eta saritua lortu dutenengan ikusten dudana beste prozesu sutil batetik datorkit. Susmatzeko bidea puntu honetan datza.

Batetik, euskarazko goi-mailako irakaskuntzari erasotzeko, behin eta berriro entzun behar izan dugu, "kalitatearen" aitzakia. Bazirudien berme herezia behar zela hartu euskaraz irakasteko eta ikertzeko gai izango ziren pertsonen bilaketan, eta berme hori lortu ezean euskal adarrak ezin bultza zitezkeela. Orain, gure poztasunerako, goreneko mailako ikertzailetzat euskaldun diren zientzialariak saritzen ikusten ditugun uneon, kezka betetzen gaitu ikusteak ezen, horien proposamenak ez doazela Euskal Unibertsitate kalitatezkoa sortzearen bidetik, goi-mailako ikerkutzazentro "internazionalak" sortzearen bidetik baizik. Uste dut guztiz desegokia dela planteamendua, errekonozimenduaren zamarekin lotuta susmatzen dudana bestalde, herriz ere kalitatearen —oraingoan goi-kalitatea— izenean euskara eta Euskal Unibertsitatea *ad calendas graecas* alboratuz.

Antzeko zerbaite esan daiteke, beste zenbait euskaldun errekonozitu —batzuek euskaltzainak— zuzendaritza- edo errektorretza-taldeetako partaide eta buru izatera iristen direneko goraipamenaz. Praktikan ikus daitekeenez, horiek ez dira gaur egun ez Euskal Unibertsitatearen sortzaile eta laguntzaile, dauden unibertsitateetan elebitasuna euskaldunentzako —eta ez erdaldunentzako— helburu modura jartzeko prozesuaren bul-

tzatzaile baizik, hots, kategoria izatera eramateko prozesuen gidatzaile. Ezarrita dagoen sisteman integratzeko duten indarragatik, goraipamenaren estetikaren ingurukoak kezkatzeko moduko prozesuak direla, jadanik gertatzen ari direnak, eta agian etorkizunean areagotuko direnak.

Nolabaiteko amaiera

Hitzaldi honen amaierarako, Euskal Unibertsitatearen sorrera posiblerako bideari dagokionez, arazo honetan inplikaturik dagoen beste euskaldun baten iritzia plazaratuko dut, enearen guztiz kontrakoa dena. Amaierarako utzi dut, kontrastea nabarmenago gera dadin. Agian haserretu egingo zait bera, baina horrek ez nau gehiagi kezkatzen, ene gogoetaren argitzaile nagusienetako bat berak eramandako jarrera baita. Pello Salaburu jaunari buruz ari naiz. Gogoan dut UPV-EHUKO errektore honek Diario de Noticias egunkariari eskainitako elkarrizketa batean esandakoa (98-II-14), egunkariak izenburutzat hartu izan zuena: *"Euskal Unibertsitate bat sortzea, neurri batean, EHUren frakasoak litzateke"*. Ikus daitekeenez, berak oso ondo ulertzen du bi kontzeptuen arteko desberdintasuna, bestela ez bailituzke era horretan kontrajarrita azalduko. Baina aldi berean, Euskal Unibertsitatea sortzearen aurkako jarrera ere azaltzen du, zeren bere helburua benetako Eua sortzea balitz, ez bailuke frakasotzat hartuko eboluzio naturalaren azken lorpenzat baizik. Horregatik, agintaritzan daudenen hitzak behin baino gehiagotan alderantziz ulertzera ohituta nagoen honek, justu-justu alderantziz ulertu izan nuen esaldia. *"EHUren frakasoak agerikoa denez, Euskal Unibertsitatea sortu beharko dugu"*. Hitz-jokoaren funtsa ulertuko duzuelakoan, besterik ez.

J.R. Etxebarria